

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DULANTZIKO UDALA

Onespena ematea udal plangintzako arau subsidiarioen zazpigarren aldaketa puntualaren herritarren partaidetzarako programari

Udalbatzaren osoko bilkurak, 2022ko azaroaren 30ean egindako ohiko bilkuran, udal plangintzako arau subsidiarioen zazpigarren aldaketa puntualaren herritarren partaidetzarako programa onestea erabaki zuen. Aldaketa horren helburua da Dulantziko udalerrriaren mende-baldean dauden lursailen hirigintza birsailkapena eta birkalifikazioa egitea, lurzoru urbanizaezinetik industria erabilerako lurzoru urbanizagarria.

Herritarren partaidetzarako programa

Programaren helburuak

Herritarrek eta herritarren erakundeek parte hartzeko dituzten moduak askotarikoak dira, eta horien definizioak garrantzi handia du. Herritarren parte hartzearen helburua da komunitatearen benetako inplikazioa lortzea, etorkizuneko udalerrriaren konfigurazioa eta egungo kudeaketaren zati bat eratzea ekarriko duten erabakiak hartzeko orduan.

Programa horrek proposatzen dituen tresnen bidez, herritarrek udalerrriaren hirigintza garapenean duten parte hartzea bideratu nahi da, hau da, herritarrek agintari publikoei beren interesen eta lehentasunen berri emateko bitartekoak kudeatu nahi dira, herritarrek eragin dezaten Dulantziko udalerriko hiri garapenaren eredia definitzean agintariek har ditzaketen erabakietan.

Lurralde eta hiri eredu jasangarriaren definizioak uztartu egin behar ditu komunitatearen esku hartze protagonista eta komunitatetik hurbilen dagoen botere politiko eta administratiboa, hau da, toki administrazioa.

Herritarren parte hartzeak

– Hiri arazoan ezagutza hobetzen du, eta gizartearen inplikazioa sustatzen du diagnostikoan eta plangintzaren garapenean.

– Jendearen interesak kontuan hartzea errazten du.

– Kide izatearen sentimendua garatzen du, eta pertsonak udalerriarekin identifikatzen ditu.

– Ikasteko, ingurumen erantzukizuna baliatzeko eta arazoak hautemateko aukerak ematen ditu.

– Gatazkei aurrea hartzen laguntzen du.

– Hartutako erabakiak hobeto ulertzeko aukera ematen du.

– Hartutako erabakiei legitimitate handiagoa ematen die.

Herritarren parte hartzearen helburua da komunitatearen benetako inplikazioa lortzea udalerrriaren hirigintza garapenean erabakiak hartzeko orduan.

Lurralde eta hiri eredu jasangarriaren definizioak uztartu egin behar ditu komunitatearen esku hartze protagonista eta komunitatetik hurbilen dagoen botere politiko eta administratiboa, hau da, toki administrazioa.

Programaren hartzailleak

Herritarren partaidetzarako programaren hartzailleak Dulantziko udalerriko bizilagunak izango dira, baldin eta, beren kabuz edo elkarte edo taldeen bidez, iradokizunak, eragozpenak, alegazioak, proposamenak, erreklamazioak, kexak eta abar aurkeztu nahi badituzte Dulantziko udalerriko hirigintza plangintzaren gainean proiektatzen diren egungo egoeraren berrikuspen eta alternatiben garapenari buruz.

Arreta berezia emango zaie, besteak beste, honako hauei:

- Ingurumen arloko elkarteei.
- Desgaitasuna duten pertsonen elkarte edo kolektiboei.
- Izaera sozialeko elkarte edo kolektiboei (adinekoen elkarteak, emakumeen eta kontsumitzaileen elkarteak, gazte elkarteak eta abar).
- Hezkuntza eta kirol arloko elkarteei (ikasleen guraso elkarteak, ikastetxeak edo institutuak, aisialdiko zentroak, kirol elkarteak edo klubak eta abar).
- Inguruko beste elkarte batzuei (kultura elkarteak oro har, gai jakin bateko elkarteak eta abar).

Herritarren partaidetzarako programaren betekizunak

1) Informazioa ematea.

Informazioa aurreikustea ezinbesteko baldintza da parte hartze eraginkorra izateko.

Informazio ulergarria, egiazkoa eta egokia emango da, eta parte hartze eraginkorra bermatzeko nahikoa denborarekin emango da. Informazio hori euskarri fisikoan edo paperean eta formatu digitalean emango da.

2) Kontsultak egitea.

Kontsuluten helburua izango da udalerriko bizilagunen interesak eta beharrak zehaztea.

Kontsultak egiteko moduak honako hauek izan daitezke:

- Kontsulta idatzia: galdetegi edo iradokizun postontzi eskuragarrien bidez egingo dira kontsultak.
- Ahozko kontsulta: parte hartzeko jardueretan zehar egingo dira (bilerak, elkarrizketak, hitzaldiak).

3) Parte hartze publikoko prozesuko jardueren jakinarazpena.

Behar besteko denborarekin jakinaraziko zaizkie udalerriko kolektibo eta bizilagun guztiei partaidetza prozesuko jarduera guztiak.

4) Herritarren partaidetzarako prozesuaren emaitzak eta ebaluazioa.

Udalerriko bizilagunen eta kolektiboen ekarpenak eta iruzkinak berrikusi eta aztertuko dira.

Herritarren partaidetzarako programaren tresnak

1) Arau subsidiarioen aldaketa puntuala idazteko prozesua hastea.

– Arau subsidiarioen aldaketa puntuala idazteko eta formulatzeko prozesuaren hasiera jakinaraztea (iragarkia udaletxeko iragarki taulan eta web orrian).

– Kolektibo bakoitzak arau subsidiarioen aldaketa puntualean jorratu beharreko kezkak eta beharrak zehaztea.

– Iradokizunen postontzia jartzea web orrian.

- 2) Arau subsidiarioen aldaketa puntualaren proiektua: hasierako onespena.
- Hasierako onespeneren ildo nagusiak argitaratzea (paperezko euskarria eta/edo web orria).
 - Hasierako onespeneren dokumentazio tekniko guztia argitaratzea (web orrian eta udalerriko erreprografia dendetan lortzeko aukera).
 - Jendaurrean jartzea (alegazio aldia), hasierako onespeneren fasearen barruan (45 egun). Iragarkia argitaratzea: ALHAO eta Diario de Noticias de Álava egunkarian.
 - Erakusketa eta herritarrei arreta emateko bulegoa, kontsulta digitalerako ordenagailuz hornitua, aurrez aurreko langileez gain.
- 3) Arau subsidiarioen aldaketa puntualaren proiektua: behin betiko onespena.
- Herritarren partaidetzarako prozesuaren azterketa eta ebaluazioa. Herritarren partaidetzarako prozesuaren ondorioak argitaratzea (paperezko euskarria eta/edo web orria).
 - Arau subsidiarioen aldaketaren behin betiko onespeneren ildo nagusiak argitaratzea (paperezko euskarrian eta/edo web orrian).
 - Arau subsidiarioen aldaketaren dokumentazio tekniko guztia argitaratzea (paperezko euskarria eta/edo web orria).

Dulantzi, 2023ko urtarrilaren 18a

Alkatea

JOSEBA KOLDO GARITAGOITIA ODRIA